

BESTELAKO XEDAPENAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3689

1209/2024 EBAZPENA, uztailaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena Osakidetza Administrazio Kontseiluak emandako eskuordetzea baitu, toki-erakundeetarako laguntzak esleitzen dituena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren Administrazio Kontseiluak 2024ko urtarriaren 30ean hartutako Erabakiaren bidez, 2024. urtean toki-erakundeei laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartu ziren.

Hartarako izendatutako Batzordeak aurkeztu diren eskabideak aztertu eta gero, laguntzak esleitzeko proposamena egin zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarri, ebazpena eman dezan.

Beraz, deialdiaren 7. oinarrian ezarritakoa betez, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak emandako eskuordetzeaz baliatuz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Dagozkien diru-laguntzak ematea honako toki-erakunde hauei. Bakoitzari, aipatzen diren kontzeptuengatik, adierazitako zenbatekoa emango zaio. Laguntzak ematea eta ordaintzea Batzordeak deialdian ezarritako baldintzen menpe egongo da.

Araba			
Erakunde	Toki-erakundea	Kontzeptua	Aitortu (eurotan)
Arabako ESla	Bernedoko Udala	Komuna konpontzeko eta eraberritzeko obrak	10.380,00
Arabako ESla	Antoñanako Administrazio Batzarra	Instalazio fotovoltaikoa eta berokuntza-sistema	12.668,92
Arabako ESla	Otxandioko Udala	Osasun-zentro berriaren proiektua idaztea	8.700,48
Arabako ESla	Erriberabeitiako Udala	Irisingarritasuna hobetzea eta fatxadak konpontzea	15.613,96
Arabako ESla	Añanako Udala	Altzariak eraberritzea eta erostea	10.187,29
Arabako ESla	Urkabustaizko Udala	Kontsultak eraberritzea eta komun egokitua	26.287,74
Araba Errioxako ESla	Bilarko Udala	Altzariak	721,16
Araba Errioxako ESla	Lagrango Udala	Altzariak erostea	3.443,67
Araba Errioxako ESla	Mañuetako Udala	Altzariak erostea	1.873,08
Araba Errioxako ESla	Lantziegoko Udala	Bulegoko bi aulki	544,50
Araba Errioxako ESla	Lezako Udala	Altzariak erostea	1.311,64
Araba Errioxako ESla	Nabaridasko Udala	Altzariak erostea	340,97
Araba Errioxako ESla	Samaniegoko Udala	Aire girotuaren instalazioa	6.736,07
Araba Errioxako ESla	Eskuarnagako Udala	Altzariak erostea	531,86
		Guztira	99.341,34

2024ko uztailaren 29a, astelehena

Bizkaia			
Erakunde	Toki-erakundea	Kontzeptua	Aitortu (eurotan)
Barrualde-Galdakaoko ESla	Arrankudiagako Udala	Beirak energia-efizientziagatik berritzea	8.692,64
Barrualde-Galdakaoko ESla	Eako Udala	Mediku-kontsultategiaren barnealdea eta kanpoko irisgarritasuna hobetzea	21.964,30
Barrualde-Galdakaoko ESla	Gautegiz-Arteagako Udala	Biltegi-eremuan lurzorua ordezte eta konpontzea	1.784,75
Barrualde-Galdakaoko ESla	Mundakako Udala	OZaren errehabilitazioa	63.066,55
Barrualde-Galdakaoko ESla	Zaratamoko Udala	Eskola zaharrak kontsultategirako birgaitzea. 2.fasea	41.142,55
Uribeko ESla	Barrikako Udala	Iparraldeko eta ipar-ekialdeko fatxada birmoldatzea	20.532,50
Guztira			157.183,28

Gipuzkoa			
Erakunde	Toki-erakundea	Kontzeptua	Aitortu (eurotan)
Tolosaldeko ESla	Alegiako Udala	OZaren erreforma integrala	195.807,58
Tolosaldeko ESla	Elduaingo Udala	Konfidentzialtasuna, osasungarritasuna, itxarongelarako soinu-ekipoa eta ohatila elektrikoa hobetzea	5.402,25
Tolosaldeko ESla	Legorretako Udala	OZaren eraberritze partziala	37.530,55
Debagoienako ESla	Aramaioiko Udala	Ekialdeko fatxadaren energia-efizientzia hobetzea	4.735,00
Guztira			243.475,38
Laguntzen zenbatekoa, guztira: 500.00,00			

Aipatutako laguntza jasotzeko, toki-erakunde bakoitzak onartu egin beharko ditu laguntzok, baita deialdian adierazitako gainerako eskakizun guztiak ere.

Diru-laguntza Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak ordainduko du transferentzia bidez; horretarako, onuradunak diru-laguntza ematean helburu zena bete dela egiaztatu beharko du jatorrizko agiriaren bidez, kasu bakoitzaren arabera: proiektua idazteagatik ordainsariak, obra-ziurtagiriak -arkitekto zuzendariak baloratu eta sinatutakoak- edo altzariak eskuratu direla egiaztatzen duten fakturak -aurrekontua aurrez onartuko da-, baita ordainketa onartzen duen osoko bilkuraren zein gobernu-batzordearen erabakia edo alkatetzaren dekretua ere.

Ordainketa egiteko agiriak aurkezteko azken eguna 2024ko abenduaren 31 izango da, eta obrak legez ezarritako prozedurak erabiliz burutuko dira.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAr argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena.– Diru-laguntza jasoko duten toki-korporazioei, dagokien onarpen-agiria bidaltzea; agiri hori behar bezala beteta itzuli beharko dute, jakinarazpena egiten denetik hasi eta 15 egun naturaleko epean.

Behin betiko ebazpen honen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, ebazpena EHAAr argitaratzen den egunetik aurrera, hilabeteko epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluek xedatutakoaren arabera (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkeran). Horretaz gain,

2024ko uztailaren 29a, astelehena

administrazioarekiko auzien bideari ere ekin ahal izango diote zuzenean, dagokion administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztuta.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 18a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.